

**11.- HAUR ZAINKETAKO TASA**

Ohiko erabilera: 54 euro/hilabetero ume bakoitza  
Noizbehinkako erabilera: 5 euro/egunero ume bakoitza

2. umea: ehuneko 20ko deskontua

3. umea eta hurrengoak: ehuneko 50ko deskontua

Ondategi, 2009ko abenduaren 23.- Ordezko Alkatea, PEDRO RUIZ DE ERENCHUN GARCÍA DE CORTAZAR.

**Kuadrillak****AÑANA****8981**

**2010 ekitaldirako Añanako Kuadrilako hiri hondakinak biltzeko zerbitzua eskaintzeko zerga eta arau Ordenantzaren aldaketari behin betiko onespena ematea.**

Añanako Kuadrilako Batzarrak 2009ko abenduaren 29an egin zuen ezohiko bileran, hiri hondakinak biltzeko zerbitzua eskaintzeko zerga eta Arau Ordenantzaren aldaketari behin betiko onespena eman zion, azaroaren 13an emandako behinbehineko onspenaren kontra aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren.

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.4. artikuluan xedatutakoaren ildotik argitara ematen dira onspen akordioa eta ordenantzen testu osoa.

Behin betiko onspenak agortu egiten du administrazio bidea, eta haren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitara ematen den egunaren biharamunetik kontatuta, egokitzat jotzen den besterik baztertu gabe.

Rivabellosan, 2009ko abenduaren 29an.- Añanako Kuadrillako Presidentea, MARÍA JOSEFA MARTÍNEZ RUBIO.

**Añanako Kuadrillako hiri hondakinak biltzeko zerbitzua eskaintzeko zerga eta arau Ordenantza**

**I. TITULUA**

**I. KAPITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK**

1. ARTIKULUA.- Toki Administrazioaren Erregimenaren Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84., 105. eta 106. artikuluek ematen dituzte, lege horretako beroretako 26.1.a) artikuluekin lotuta (arloan honetako eskumena zehazten du, udalerriek, eurek bakarrik edo beste udalerrri batzuekin elkartuta, hondakinak biltzeko zerbitzua eman behar dutela esatean) ordenantza hau emateko ahalmenak. Orobat, 63/89 Foru Arauaren 28 e) artikuluari eta Añanako Kuadrillaren Antolamendu eta Funtzionarmendu Araudiaren 7 eta 10 artikuluei jarraituz sorteen da ordenantza hau, Arabako Lurralde Historikoko Toki Administrazio Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/89 Foru Arauak ezarritako prozeduraren arabera (bereziki Foru Arau horren 15.etik 18.era bitarteko artikuluen, 20.etik 27.era bitarteko artikuluen eta 55. artikuluen arabera).

2. ARTIKULUA.- Ordenantza honen ondorioetarako, banakoen bizilekuetan, saltokietan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortutakoak joko dira hiri hondakintzat, bai eta, beren izaera edo osagaratik aipatutako leku edo jarduera horietan sortutako antzekoak direnak ere, arriskutsuak ez badira.

3. ARTIKULUA.- Ordenantza honetako xedapenen osagarri, Toki Administrazio Ogasunak arautzen dituen 41/89 Foru Araua, Zergen Foru Arau Orokorra eta Toki Administrazioaren erregimenari aplikatzeko den edozein administrazio araudi ere bai.

**11.- TASA POR SERVICIO DE CUSTODIA INFANTIL**

Uso habitual: 54,00 euros/ mes por cada niño/niña

Uso ocasional: 5,00 euros/día por cada niño/niña

2º hijo: 20 por ciento de descuento

3er hijo y sucesivos: 50 por ciento de descuento

Ondategi, 23 de diciembre de 2009.- El Alcalde en funciones, PEDRO RUIZ DE ERENCHUN GARCÍA DE CORTAZAR.

**Cuadrillas****AÑANA****8981**

**Aprobación definitiva de la modificación de la Ordenanza reguladora y fiscal para la prestación del servicio de recogida de residuos urbanos de la Cuadrilla de Añana para el ejercicio 2010.**

La Junta de Cuadrilla reunida en sesión celebrada el día 29 de diciembre de 2009, acordó aprobar con carácter definitivo la Ordenanza reguladora y fiscal para la prestación del servicio de recogida de residuos urbanos de la Cuadrilla de Añana, resolviéndose las reclamaciones presentadas contra el acuerdo de aprobación provisional de 13 de noviembre de 2009.

A tenor de lo dispuesto en el Artículo 16.4 de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales Alavesas, se procede a la publicación del acuerdo de aprobación así como del texto íntegro de la ordenanza.

Contra la aprobación definitiva, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación del presente anuncio en el BOTHA, sin perjuicio de cualquier otro que se estime pertinente.

En Rivabellosa, a 29 de diciembre de 2009.- La Presidenta de la Cuadrilla de Añana, MARÍA JOSEFA MARTÍNEZ RUBIO.

**Ordenanza reguladora y fiscal para la prestación del servicio de recogida de residuos urbanos de la Cuadrilla de Añana**

**TÍTULO I**

**CAPÍTULO I  
DISPOSICIONES GENERALES**

ARTÍCULO 1.- La presente Ordenanza se dicta en virtud de las facultades conferidas por los Artículos 84, 105 y 106 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, en relación con el 26.1.a) de este cuerpo legal que fija la competencia de esta materia al determinar que los municipios por sí o asociados deberán prestar, entre otros, el servicio de recogida de residuos. Así mismo, se crea esta Ordenanza conforme a los artículos 28 e) de la Norma Foral 63/89, 7 y 10 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Cuadrilla de Añana y, siguiendo el procedimiento establecido en la Norma Foral 41/89, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Álava, en particular sus artículos 15 a 18, 20 a 27 y 55.

ARTÍCULO 2.- Por residuos urbanos a los efectos de esta Ordenanza, se consideran los generados en los domicilios particulares, comercios, oficinas y servicios, así como todos aquellos que no tengan la calificación de peligrosos y que por su naturaleza o composición puedan asimilarse a los producidos en los anteriores lugares o actividades.

ARTÍCULO 3.- Sin perjuicio de las disposiciones contenidas en esta Ordenanza será de aplicación con carácter supletorio el Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales así como, en la Norma Foral 41/89, reguladora de las Haciendas Locales, Norma Foral General Tributaria y cualquier normativa administrativa que resulte de aplicación al régimen de Administración Local.

## XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

4. ARTIKULUA.- Ordenantza honen xedea da Añanako Kuadrilla osatzen duten udalerrietako hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu orokorra arautu eta antolatzea; hauek dira Kuadrilla osatzen duten udalerrak: Añana, Armiñón, Berantevilla, Kuartango, Iruña Oka, Lantarón, Erribera Goitia, Erribera Beitia, Valdegovía eta Zambrana.

5. ARTIKULUA.- Ordenantza honen xedea da, orobat, berak arautzen duen zerbitzuarengatik ordaindu beharreko tasen ezarpena, kudeaketa eta bilketa arautzea eta zerbitzuen funtzionamendu okerra eragiten duten jarreraren kontrol neurriak ezartzea.

II. KAPITULUA  
ZERBITZUA EMATEKO MODUAK

6. ARTIKULUA.- Hiri hondakinak biltzeko zerbitzua kudeaketa zuzenaren bitartez emango da. Hala ere, unean uneko egoerak eska dezake zerbitzua emateko modu hori aldatzea eta, horren ordez, Legeak aurikusten dituen beste moduetako batez baliatzea.

III. KAPITULUA  
ZERBITZUA NAHITAEZ HARTU BEHARRA ETA  
ZERBITZUAREN BARRUAN SARTZEN DIRENAK

7. ARTIKULUA.- Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeak xedatutakoaren arabera, eta ordenantza honetan xedatuta koetarako, hiri hondakintzat joko dira:

1. Herritarrek beren etxeetan sortzen dituzten janari eta kontsumo hondakinak.

2. Berdegune, jolasgune eta kaleen garbiketarik datozen hondakinak.

3. Etxeetako altzari eta tresnak.

4. Bertan behera utzitako ibilgailuak.

5. Hildako etxeko abereak.

6. Etxeko eraikuntza eta konponketako obra txikietatik datozen hondakinak.

7. Zerbitzu, merkataritza eta industria jarduerak eragindako hondakinak, arriskutsuak ez badira eta beren izaera edo osakeragatik etxeetako hondakinen antzekoak badira.

8. Tabernetako, jatetxeetako eta jakiak prestatzen diren edo jakiak kontsumitzen diren establezimenduetako kontsumoak eragindako hondakinak. Orobat, supermerkatu eta autozerbitzuetan eragindakoak.

9. Egoitza, hotel, ikastetxe eta beste establezimendu publiko batzuetako kontsumo hondakinak, oro har.

10. Udal merkatuetako jarduerak eragiten dituen hondakinak.

8. ARTIKULUA.- Añanako Kuadrillak emango duen zerbitzuan ez da sartuko ondoko hiri hondakin hauen bilketa eta tratamendua:

a) Fabrikazio edo eraldaketa prozesuek eragiten dituzten hiri hondakinak, fabrika, tailer, biltegi edo hondakinen tratamenduko instalazioetan sortzen direnak, baldin eta Añanako Kuadrilako Zerbitzuen iritziz horiek ezin biltzekoak badira, berorien itxura, bolumen, pisu, eguneroko kantitate, hezetasun eta beste arrazoi batzuegatik.

b) Hildako etxeko abereak.

c) Etxeko eraikuntza eta konponketa obra txikietatik datozen hondakinak.

d) Bertan behera utzitako ibilgailuak.

9. ARTIKULUA.- Segidan aipatzen diren hondakin hauek ez dira hiri hondakintzat hartuko, eta ondorioz, ez dira zerbitzuan sartuko:

a) Neumatikoak.

b) Eritetxeetako oso kutsatutako hondakinak eta erabilitako eta iraungitako medizinalak.

c) Indusketetako lur, harri eta antzeko materialak, eta eraikuntza eta eraisketa lanetako hondakinak eta, oro har, obra nagusietako hondar guztiak.

## OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

ARTÍCULO 4.- La presente Ordenanza tiene por objeto reglamentar y ordenar el servicio general de recogida y transporte de los residuos urbanos de los Municipios que comprende la Cuadrilla de Añana, esto es, Añana, Armiñón, Berantevilla, Kuartango, Iruña de Oca, Lantarón, Ribera Alta, Ribera Baja, Valdegovía y Zambrana.

ARTÍCULO 5.- Constituirá también el objeto de la presente Ordenanza, la imposición, gestión y recaudación de las tasas correspondientes al servicio en la misma reglamentadas, así como el establecimiento de las medidas de control de las conductas que generen un mal funcionamiento del servicio.

CAPÍTULO II  
DE LAS MODALIDADES DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO

ARTÍCULO 6.- El servicio de recogida de residuos urbanos se prestará en la modalidad de gestión directa. Sin perjuicio de que en atención a circunstancias del momento sea preciso variar dicha modalidad de prestación, a otra de las previstas en la Ley.

CAPÍTULO III  
DE LA OBLIGATORIEDAD DEL SERVICIO Y  
PRESTACIONES QUE COMPRENDE

ARTÍCULO 7.- De conformidad con lo dispuesto en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos y a los efectos de la presente ordenanza, tendrán la consideración de residuos urbanos los siguientes:

1. Los desechos de la alimentación y del consumo doméstico producidos por los ciudadanos en sus viviendas.

2. Los residuos procedentes de la limpieza de zonas verdes, áreas recreativas y vías públicas.

3. Los muebles y enseres domésticos.

4. Vehículos abandonados.

5. Animales domésticos muertos.

6. Residuos y escombros procedentes de obras menores de construcción y reparación domiciliaria.

7. Los residuos producidos por actividades de servicios, comerciales, e industriales, que no tengan la calificación de peligrosos y que por su naturaleza o composición puedan asimilarse a los desechos domiciliarios.

8. Los residuos producidos por el consumo de bares, restaurantes, y demás establecimientos que expidan alimentos cocinados o en los que se realicen consumiciones de alimentos. Así mismo, los producidos en supermercados y autoservicios.

9. Los residuos de consumo en general, producidos en residencias, hoteles, colegios y otros establecimientos públicos.

10. Residuos originados por la actividad de mercados municipales.

ARTÍCULO 8.- 1. El servicio prestado por la Cuadrilla de Añana no comprenderá la recogida y tratamiento de los siguientes residuos urbanos:

a) Los residuos urbanos originados por los diferentes procesos de fabricación o transformación, producidos en fábricas, talleres, almacenes o instalaciones de tratamiento de residuos que por las condiciones de su presentación, volumen, peso, cantidad de libramiento diario, contenido de humedad y otras, resulte que, a juicio de los servicios de la Cuadrilla de Añana, no puedan ser objeto de recogida.

b) Animales domésticos muertos.

c) Residuos y escombros procedentes de obras menores de construcción y reparación domiciliaria.

d) Vehículos abandonados.

ARTÍCULO 9.- No se consideran residuos urbanos y por tanto, el servicio no comprenderá la recogida y tratamiento de los siguientes residuos:

a) Los neumáticos.

b) Residuos clínicos altamente contaminados y medicamentos usados y caducados.

c) Tierras, piedras y materiales similares procedentes de excavaciones y residuos resultantes de trabajos de construcción, demolición, derribo y, en general, todos los sobrantes de obras mayores.

d) Landa lurzoruan kokatutako nekazaritza, abelazkuntza edo baso jardueretan sortzen diren hondakinak.

e) Pilak.

f) 952/1997 Errege Dekretuan onartutako zerrendan "arriskutsu" gisa agertzen diren hondakinak, eta hondakin horiek eduki dituzten ontziak. Europako erkidegoetako araudietan arriskutsutzat jo izan direnak eta Gobernuak, Europar araudiei jarraituz edo Espainiak parte izan duen nazioarteko itunei jarraituz, halakotzat jotzen dituenak.

10. ARTIKULUA.- 8. eta 9. artikuluetako kasuetan, norik ere dauzkan, harek bildu eta tratatu beharko ditu hondakinak.

11. ARTIKULUA.- Ordenantza honetako 7. artikuluko 1., 2., 3., 7., 8., 9. eta 10. puntuetako hiri hondakinak baino ez dira bilduko.

#### IV. KAPITULUA HONDAKINAK BILTZEKO PROZEDURA ETA ZERBITZUAREN OSAGAIK

12. ARTIKULUA.- Hiri hondakinak biltzeko zerbitzua honako urrats hauei jarraituz egingo da:

a) Zaborrak, utzi behar diren lekuetatik bilketarako ibilgailuetara eramatea.

b) Zaborren edukiontzia ibilgailu horietara hustea.

c) Hustu ondoren, edukiontzia beren lekuetan uztea.

d) Lan horien ondorioz bide publikoetara erori diren zaborrak biltzea.

e) Zaborrak tratamenduguneetara eraman eta han hustea.

f) Edukiontzia eta hondakina jasotzeko guneak garbitzea.

13. ARTIKULUA.-

1.- Zerbitzua gauzatzeko, Añanako Kuadrillan horretarakoxe dauden ibilgailu eta edukiontzia erabiliko dira.

2. Añanako Kuadrillak edukiontzi sare bat ezarriko du biztanlegune bakoitzean, biztanlegune bakoitzaren beharren arabera.

14. ARTIKULUA.-

1.- Añanako Kuadrillak, zabor bilketarako, Kuadrillako udalerriri bakoitzarentzat egokien deritzon maiztasuna ezarriko du.

2.- Kuadrillak zabor bilketako zerbitzuaren programan aldaketak egin ahal izango ditu, interes publikoa dela-eta komenigarria dela deritzonean.

15. ARTIKULUA.- Ordenantza honen ondorioetarako, erabiltzailek joko dira hiri hondakinak biltzeko zerbitzuaren onura jasotzen duten pertsona fisiko eta juridiko guztiak, edo zerbitzu horren eraginpean daudenak.

1. Zabor bilketarako Kuadrillak ipintzen dituen edukiontzia erabili beharko dituzte erabiltzaileek, behar bezala.

2. Añanako Kuadrillako Zerbitzuek ezarriko dute zelako edukiontzia erabiliko diren eta horien kopurua.

3. Jabetza publikoko edukiontzia hondatuta daudenean, Añanako Kuadrillak ordeztuko ditu; hala ere, behar bezala ez erabiltzeagatik ezin erabiltzeko moduan gelditu badira, erabiltzaileari ordainarazi ahal izango zaio.

4. Añanako Kuadrillak eskubidea izango du edukiontzia aldi baterako tokiz aldatzeko, interes publikoagatik hala komeni bada. Tokiz aldatzeko arrazoia desagertutakoan, lehengo lekuan ipiniko dira berriro.

5. Hirigunean pasabide eta leku bereziak gordetzeko eska dezake Kuadrillak, zamaketa eta husketarako eta zabor edukiontzia ondo zaintzeko beharrezko diren gainerako lanetarako.

6. Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko 11/1995 Foru Arauaren 7 b) artikuluan ezarritako eskumenak baliatuz, Kontzejuek proposatutako dute edukiontzia non kokatu, eta Kuadrillak ebatziko du proposatutako leku horietan teknikoki zaborrak biltzerik

d) Residuos generados en las actividades ubicadas en suelo rural, con carácter de agrícolas, ganaderos o forestales.

e) Pilas.

f) Los residuos que figuren como "peligrosos" en la lista aprobada en el Real Decreto 952/1997, así como los recipientes y envases que los hayan contenido. Los que hayan sido calificados como peligrosos por la normativa comunitaria y los que pueda aprobar el gobierno de conformidad con lo establecido en la normativa europea o en convenios internacionales de los que España sea parte.

ARTÍCULO 10.- En los casos señalados en los artículos 8 y 9, la retirada y tratamiento se realizará por el poseedor de los residuos.

ARTÍCULO 11.- Serán objeto del servicio de recogida los residuos urbanos previstos en los puntos 1, 2, 3, 7, 8, 9 y 10 del artículo 7 de la presente Ordenanza.

#### CAPÍTULO IV PROCEDIMIENTO Y ELEMENTOS DE RECOGIDA

ARTÍCULO 12.- La prestación del servicio de recogida de residuos urbanos, comprenderá las siguientes operaciones:

a) Traslado de basuras desde los puntos de depósito hasta los vehículos de recogida.

b) Vaciado de los contenedores en los elementos de carga de dichos vehículos.

c) Devolución de los contenedores, una vez vaciados, a su punto de ubicación habitual.

d) Limpieza de las basuras vertidas en la vía pública a consecuencia de estas operaciones.

e) Transporte y descarga de las basuras, en los centros de tratamiento habilitados al efecto.

f) Limpieza de los contenedores y de los puntos de recogida.

ARTÍCULO 13.-

1. Para la realización del servicio se utilizarán los vehículos y contenedores dispuestos al efecto disponibles en la Cuadrilla de Añana.

2. La Cuadrilla de Añana establecerá una red de contenedores en cada núcleo, según las necesidades del mismo.

ARTÍCULO 14.-

1. La Cuadrilla de Añana establecerá la recogida de basuras con la frecuencia que considere más idónea para los intereses de cada municipio perteneciente a la misma.

2. La Cuadrilla podrá introducir, en todo momento, las modificaciones al programa de servicios de recogida que, por motivos de interés público, tenga por conveniente.

ARTÍCULO 15.- A los efectos de la presente ordenanza, tendrán la consideración de usuarios, todas las personas físicas y jurídicas que resulten beneficiadas o afectadas por el servicio de recogida de residuos urbanos.

1. Los usuarios estarán obligados a utilizar debidamente los contenedores que a tal fin sean instalados por la Cuadrilla.

2. El tipo de contenedores y el número de unidades a emplear, será fijado por los servicios de la Cuadrilla de Añana.

3. Tratándose de elementos contenedores de propiedad pública, la Cuadrilla de Añana procederá a su renovación, pudiéndose imputar el cargo correspondiente al usuario cuando hayan quedado inutilizados para el servicio por su uso indebido.

4. La Cuadrilla de Añana se reserva el derecho de modificar la ubicación de los contenedores de forma transitoria, cuando así lo aconsejen motivos de interés público. Una vez desaparecida la causa que motivó el traslado, se ubicarán en los lugares de origen.

5. La Cuadrilla podrá solicitar el establecimiento de vados y reservas especiales del espacio urbano para la carga, descarga y demás operaciones necesarias para la correcta conservación de contenedores de basura.

6. En virtud de las competencias establecidas en el artículo 7 b) de la Norma Foral 11/1995 de 20 de marzo, de Concejos del Territorio Histórico de Álava, los Concejos determinarán los emplazamientos de los contenedores, siempre que a juicio de la Cuadrilla sea técni-

badagoen. Kontzejurik ez dagoen lekuetan, Udalak erabakiko du aipatutakoaren arabera edukiontzia non kokatu.

7. Biztanlegune bakoitzeko administrazio Batzarrak edo, hala balegokio, Udalak lagundu egingo dute bertan kokatutako edukiontzia zaintzen eta ordenantza honetako 42. artikularen arabera arau hauste izan litezkeen egintzak argitzen.

#### V. KAPITULUA

##### ERABILTZAILERAK DUEN OBLIGAZIOA AÑANAKO KUADRILLARI HIRI HONDAKIN JAKIN BATZUK BILTZEKO BEHARRIZANA JAKINARAZTEKO

16. ARTIKULUA.- Irabazteko xederik gabeko erakunde publiko edo pribatu batek antolatutako ezohiko ekintza batean hiri hondakinak sortzen direnean, eta horiek bildu eta garraiatzeko premia dagoenean, erakunde antolatzaileak, aste bete lehenago, zer zerbitzu eta zenbat edukiontzi behar dituen jakinaraziko dio Añanako Kuadrillari.

Dena delako ekintza horretarako paratutako edukiontziei, behar ez den bezala erabiltzeagatik, kalteren bat eraginez gero, erakunde antolatzaileak erantzungo du horretaz, eta bere kontura izango dira sor daitezkeen gastuak.

17. ARTIKULUA.- Bota daitezkeen altzari eta tresnak biltzeari dagokionez, interesatuek eskatu egin beharko dute zerbitzua, eta Añanako Kuadrillako zerbitzuei zuzendu beharko diete eskaria, aldeaz aurretik; kuadrillak berak ezarriko du zenbat lehenago egin behar den eskaera. Zerbitzua hilabetean behin emango da, gutxienez. Zerbitzu hau erabiliko dutenek, biltzeko ezarritako egunaren aurreko gauean, zabor edukiontzien ondoan ipini beharko dituzte botatzeko diren tresnak, ahal bada. Bestela ez dira bilduko.

#### VI. KAPITULUA

##### HIRI HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA

18. ARTIKULUA.- Ordenantza honen ondorioetarako, gaikako bilketa izango da gai erreziklagarriak bereiziz egiten den bilketa, bildu ondoren hondakinaren artean dauden material baliagarriak bereizteko modua ematen duena.

19. ARTIKULUA.- Gaika bilduko dira segidan aipatzen diren hiri hondakinak:

- a) Beira.
- b) Paper eta kartoia.
- c) Herritarrek etxean erabili eta kontsumitu ohi dituzten on-tziak.

d) Edukiontzi independente eta bereizien bidez biltzen den edozein hondakin. Aldez aurretik Koadrilako Batzarrak edukiontzia onartu beharko du.

20. ARTIKULUA.- Erabiltzaileek behar bezala erabili beharko dituzte Arabako Foru Aldundiak edo Añanako Kuadrillak paratzen dituen gaikako bilketako edukiontzia.

##### ERABILTZAILEREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

21. ARTIKULUA.- Zerbitzuaren erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

a) Añanako Kuadrillak, bitarteko tekniko egokiekin, ordenantza honetako 11. eta 19. a) eta c) artikuluetan zehazten diren hiri hondakinak bil diezazkien eskubidea, non eta ezinbesteren bat gertatzen ez den.

b) Ordaindu beharreko tasak ordenantza honetan zehaztuta ager daitezkeen eskubidea, zerga arloari buruzko zatian.

c) Ordenantza honen aplikaziotik sor daitezkeen gainerako eskubideak, edo aplikatzekoak diren legezko xedapenetan zehaztutakoak.

22. ARTIKULUA.- Zerbitzuaren erabiltzaileek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Kuadrillak kasuan-kasuan zehaztuko dituen hiri hondakinaren edukiontzia erabili beharko dituzte, indarrean dauden arauen arabera.

camente viable su recogida en los puntos de ubicación propuestos por los mismos. En las localidades donde no exista Concejo serán los Ayuntamientos los que determinen la ubicación de los contenedores de conformidad con lo señalado anteriormente.

7. La Junta Administrativa de cada núcleo de población o Ayuntamiento en su caso, colaborará en la custodia de los contenedores ubicados en el mismo y en el esclarecimiento de aquellos actos que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 42 de esta ordenanza se consideran infracciones.

#### CAPÍTULO V

##### DE LA OBLIGATORIEDAD DEL USUARIO DE COMUNICAR A LA CUADRILLA DE AÑANA LA NECESIDAD DE RECOGIDA DE DETERMINADOS RESIDUOS URBANOS

ARTÍCULO 16.- Cuando debido a la realización de alguna actividad extraordinaria organizada por una entidad pública o privada sin ánimo de lucro, sea preciso proceder a la recogida y transporte de los residuos procedentes de la limpieza urbana, la entidad organizadora comunicará a la Cuadrilla de Añana, con una semana de antelación, los servicios y número de contenedores que precisa.

En el supuesto de que los contenedores instalados para la realización de la actividad de que se trate sufran algún deterioro como consecuencia de su uso indebido, la entidad organizadora será responsable y deberá asumir los gastos que se deriven.

ARTÍCULO 17.- En cuanto a la recogida de muebles y enseres domésticos desechables, el servicio se prestará a solicitud de los interesados, previa comunicación a los servicios de la Cuadrilla de Añana con la antelación que ésta determine y con una frecuencia mínima de un día por mes. Los usuarios en la utilización de este servicio deberán colocar los enseres, siempre que sea posible, junto a los contenedores de basuras la noche anterior al día fijado para su retirada. En caso contrario no se procederá a su retirada.

#### CAPÍTULO VI

##### RECOGIDA SELECTIVA DE RESIDUOS URBANOS

ARTÍCULO 18.- A los efectos de la presente ordenanza, se considera recogida selectiva, el sistema de recogida diferenciada de materiales reciclables que permita la separación de los materiales valorizables contenidos en los residuos.

ARTÍCULO 19.- Serán objeto de recogida selectiva los siguientes residuos urbanos:

- a) Vidrio
- b) Papel y cartón.
- c) Envases de uso y consumo ordinario en los domicilios particulares.

d) Cualquier residuo para cuya recogida se disponga de un contenedor de recogida independiente y separado, previamente aprobado por la Junta de Cuadrilla.

ARTÍCULO 20.- Los usuarios estarán obligados a utilizar debidamente los contenedores de recogida selectiva que a tal fin sean instalados por la Diputación Foral de Álava o la Cuadrilla de Añana.

##### DERECHOS Y DEBERES DE LOS USUARIOS

ARTÍCULO 21.- Los usuarios del servicio tienen derecho:

a) A que la Cuadrilla de Añana les retire los residuos urbanos tipificados en el artículo 11 y 19 a) y c) de la presente Ordenanza con medios técnicos adecuados, salvo causa de fuerza mayor.

b) A que las tasas a abonar vengan legalmente establecidas en el apartado fiscal de la presente ordenanza.

c) A los demás derechos que se deriven de la aplicación de esta Ordenanza o vengan fijados en las disposiciones legales que le sean de aplicación.

ARTÍCULO 22.- Los usuarios del servicio estarán obligados:

a) A utilizar los contenedores de residuos urbanos que en cada caso determine la Cuadrilla, de conformidad con la normativa legal vigente.



b) Aldez aurretik ondo-ondo itxitako poltsa hermetikoetan sartutako hondakinak edukiontzietan utzi beharko dituzte, edukiontzietan zikinkeriarik ez sortzeko eta biltzeko orduan zaborrik ez barreiatzeko moduan. Alta, gaikako bilketako edukiontzietara poltsetan sartu gabe botako dira hiri hondakinak, zuzen-zuzenean. Oro har, debe-katuta egongo da hondakinak edukiontzi horiek ipintzeko izendatu diren lekuen inguruan uztea.

c) Ezingo dute edukiontzietan utzi 11. eta 19. artikuluetan aipatu ez den hiri hondakinak.

d) Ezingo dituzte edukiontziak publizitatea ipintzeko erabili, ez eta hauteskunde kanpainetarako ere. Horrelakorik eginez gero, dena delakoa iragartzen duen enpresa izango da erantzule, edo, hauteskunde kanpainarako erabili badira, hautagaien ordezkariak, eta erantzukizun horrek ez du kenduko indarrean dagoen hauteskunde legeak horrelakoetarako ezar dezakeen balizko zigorra.

e) Edukiontziak kontuz erabili beharko dituzte, kalterik eragin gabe; ezingo dituzte euren tokietatik aldatu, salbu eta Añanako Kuadrillak horretarako baimena ematen badu.

f) Ezingo dituzte eragotzi husketa, zamaketa eta garraiatze lanak.

g) Tasak ordaindu beharko dituzte, ordenantza honetan ezarritako zenbatekoan eta eran.

h) Ordenantza honetatik eta aplikatzekoak diren legezko xedapenetatik sor daitekeen beste edozein betebeharrak bete beharko dute.

## II. TITULUA

### ZERGA XEDAPENAK

#### I. KAPITULUA ZERGA GAIA

23. ARTIKULUA.- Etxeetako, egoitzetako eta industria, merkataritza, lanbide edo arte jarduerak egiten diren lokal eta establezimenduetako hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua da tasa honen zerga gaia.

#### II. KAPITULUA SUBJEKTU PASIBOA

##### 24. ARTIKULUA.-

1. Subjektu pasibo zergadunak dira pertsona fisiko edo juridikoak eta Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen erakundeak, baldin eta zerbitzua ematen den plaza, kale edo bide publiko eta lekuetan, etxebizitzak eta lokalak okupatu, eduki edo erabiltzen badituzte, dela horien jabe gisa edo dela usufruktudun, errentari edo prekarioko erabiltzaile gisa.

2. Zergadunaren ordezkari subjektu pasibo izango dira etxebizitza edo lokalen jabeak; horiek etxebizitza edo lokal horien erabiltzaileei jasanarazi ahal izango dizkiete ordaindutako tasak, zerbitzuaren onura euren jasoan dutenez gero.

#### ERANTZULEAK

25. ARTIKULUA.- Subjektu pasiboaren zerga obligazioen erantzule izango dira Arabako Zerga Arau Orokorraren 41. eta 42. artikuluek aipatzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiak.

26. ARTIKULUA.- Erantzukizun subsidiarioa izango dute sozietateen administratzaileak eta porrot, hartzekodunen pilaketa, sozietate eta, oro har, erakundeen sindiko, kontuhartzaile edo likidatzaileak, Arabako Zergen Foru Arauaren 43. artikuluan zehazten diren kasuetan, artikulua horretan bertan ezartzen den neurrian.

##### 27. ARTIKULUA.-

1. Legeetan aurreikusitako erantzukizun solidarioko kasuetan, zordun nagusiak ez badu zorra ordaindu nork bere borondatez ordaintzeko epearen barruan, erantzule solidarioei erreklamatu ahal izango zaie zorra; horrek, ordea, ez du kenduko zordun nagusiaren erantzukizuna.

2. Zerga zorraren osagai guztiak sartuko dira erantzukizun solidarioaren pean, diru zigorrak izan ezik.

b) A depositar en los contenedores los residuos introducidos previamente por los usuarios en bolsas herméticas perfectamente cerradas que impidan la producción de vertidos durante las operaciones de recogida y la suciedad en los contenedores. No obstante, en los contenedores específicos de recogida selectiva el vertido de los residuos urbanos se efectuará de forma directa. Con carácter general, queda prohibido el abandono de los residuos en los alrededores de las zonas habilitadas para la colocación de estos elementos de contención.

c) A no depositar en los contenedores, residuos no contemplados en los artículos 11 y 19.

d) A no utilizar los contenedores como soporte para publicidad ni en campaña electoral, siendo responsables directos de su retirada las empresas anunciadoras o los representantes de las candidaturas, sin perjuicio de la posible imposición de la sanción que por este supuesto establece la Ley Electoral vigente.

e) A tratar y manipular los contenedores con cuidado de no causarles daño sin modificar su ubicación salvo autorización expresa de la Cuadrilla de Añana.

f) A no impedir las operaciones correspondientes de carga, descarga y traslado.

g) A satisfacer las tasas en la cuantía y forma prevenida en la presente ordenanza.

h) A cumplimentar cualquier otra obligación que se derive de esta ordenanza y de disposiciones legales que le sean de aplicación.

## TÍTULO II

### DISPOSICIONES FISCALES

#### CAPÍTULO I HECHO IMPONIBLE

ARTÍCULO 23.- Constituye el hecho imponible de la tasa la prestación del servicio de recogida y transporte de residuos urbanos de viviendas, alojamientos y locales o establecimientos donde se ejercen actividades industriales, comerciales, profesionales, artísticas y de servicios.

#### CAPÍTULO II SUJETO PASIVO

##### ARTÍCULO 24.-

